



GIPUZKOAKO TXAPELKETA
GIZONEZKO 2. LURRALDEKOA

LEHIAKETEN ARAUDIA

I.- JOKATZEKO DATAK

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegiaren arabera.

II.- TALDE PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan 2022-2023 denboraldian parte hartuko duten taldeak **dagozkien klubei jakinaraziko zaie, kategoria honetan izena emateko epea amaitzen denean.**

III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau guztien aurkako formula bidez jokatu da, itzuli bikoitzean, behin betiko izena eman duten taldeen artean. **Lehiaketa erregularraren azken sailkapenaren arabera, lehen bi sailkatuak igoko dira Lehen Lurrealdeko txapelketara.**

IV.- PARTIDEN DATA ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, ezinbesteko arrazoiengatik edo Diziplina Batzordearen erabakiz beste egun batean egin beharrekoak izan ezik.

Partidek programazio bat eta balizko aldaketak izango dituzte, bai ordutegiei dagokienez, bai datari dagokionez, lehiaketako **Erregelamendu Orokorrean (3.5)** adierazitako araudiaren arabera.

Diziplina Batzordea arduratuko da arau hau betetzeaz eta, halakorik ezean, aurreikusitako zigorrak aplikatzeaz; **(3.10) atalean** adierazitakoaren arabera.

V.- PARTE HARTZEN DUTEN JOKALARIAK

Lurrealde-eremuko senior mailako gizonezkoen lehiaketetan, senior adinean **(2004 urterarte jaiotakoak)**, dauden gizonezko jokalariek parte hartu ahal izango dute, behar bezala tramitatutako lizentzia badute, bai eta klub edo/eta filial bereko gazte-jokalariek ere, baldin eta Lurrealde Federazio honek tramitatutako lizentzia badute, horri buruz ezarritako araudiarekin bat etorritik.

Lehiaketa ofizialaren hasieran, senior taldeek jokalaria-kupo nagusi bat izan beharko dute, **gutxienez hamabi (12)** eta **gehienez hogeita hiru (23)**.

Gizonezko kategoria Senior honetan, gehienez hamasei (16) jokalaria inskribatu ahal izango dira aktan, eta nahitaezkoa izango da hamar (10) jokalaria inskribatzea eta bertan egotea. Kopuru txikiago batek Lehiaketen Erregelamenduan zehaztutako zigorra dakar.

LIZENTZIA GEHIGARRIEN KUPOA:

- Taldea osa dezaketen 23 jokalarietatik, **lau klub bereko jubenil-adineko jokalarientzat (2005-06 urteetan jaiotakoak)** gorde ahal izango dira. Jokalari gazte horiek ez dira izendunak izango, partida bakoitzean gehienez 4 lerrokatu daitezke.

Horiek guztiak aldeztu aurretik **baimenduta egon beharko dute**, Lehiaketaren Erregelamendu Orokorraren 2.2 zenbakian adierazitako araudiaren arabera, eta berariazko baimenik gabe jokatu ezkeru, lerrokatze BIDEGABEA izango litzake.

- Klubeko talde seniorrekin eta/edo filialarekin parte hartzen duten jokalari jubenilek ez dute galduko jubenil-izaera, eta **jardunaldi bakoitzeko bi partida jokatu ahal izango dituzte, eguna edozein dela ere.**
- Gipuzkoako txapelketetako taldeen osara bai kupo nagusiarena, bai kupo gehigarriarena Senior txapelketan, lehiaketa amaitu baino **hiru aste lehenago** itxiko da.

Torneo eta kopak:

Talde guztiak, **torneo eta kopetan, baimenduta dauden jubenil mailako zortzi (8) jokalari lerrokatu ahal izango dituzte**, ez dira izendunak izango eta jardunaldi bakoitzeko bi partidatan lerrokatu ahal izango dira, eguna edozein dela ere.

BALDINTZA OROKORRAK:

- Kupo gehigarriko jokalaria, kirol-jardunaldi bakoitzeko, bi partidetan baino ezin izango dira lerrokatuak izan.
- Arbitroek, partiduaren aktan, nahitaez jaso behar dute norgehiagoka kategoria baino beheagoko jokalarien izen-abizenak, **baita lerrotze horretarako baimena jasotako Federazio honetako Diziiplina Batzordearen akta-zenbakia ere.**
- **Ondorioz, klub batek Lurraldeko Bigarren Mailan ari den talderen bat badu, ezin izango du mailaz igotzeko aukerarik izan, salbu eta 1. mailako Lurraldeko taldea Euskadiko Txapelketara igotzen bada edo 1.mailako taldea kategoriaz jaitsiko balitz.**

VI.- ENTRENATZAILE ETA DELEGATUAK

Talde guztiak Aktan izena ematera behartuak daude eta entrenatzaile edo entrenatzailearen laguntzaile batek egon behar du partida bakoitzean (ONARTUTAKO TITULAZIOAREKIN).

Ekipo batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia bat erabiltzen duenean, eskatutako titulazioa duela bermatu behar du; halakorik ezean, lerrokatze bidegabea izango du.

Halaber, nahitaez inskribatu behar da aktan eta bertan egon beharko du ZELAIEKO DELEGATU batek, antolatzea dagokion partida bakoitzean.

Betebehar horiek ez betetzea FGBM Alderdien eta Lehiaketen Erregelamenduaren arabera zigortuko da.

VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gipuzkoako emakumeen Lehen Lurralde Ligaren arau espezifiko hauek GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN LEHIAKETEI BURUZKO ERREGELAMENDU OROKORREAN garatutakoarekin osatzen dira, **DAGOKION OHIKO BATZARREAN** onartu zirelarik.